

Xedea

Dokumentu honetan inbertsio produktu honi buruz ezagutu beharko zenukeen oinarrizko informazioa aurkituko duzu. Ez da material komertziala. Legeak ezartzen duen informazioa da, produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta irabazia zein galera potentzialak ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin partekatzen laguntzeko.

Produktua

Produktuaren izena:	Depósito Euribor3M 12 meses 10/2027
PRII Paren sortzailearen izena:	Banco de Sabadell, S.A.
ISIN:	Ez dagokio. Barne-identifikatzailea NOE 35278
PRII Paren sortzailearen webgunea:	https://www.bancsabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRII/2000025609204/es/
Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono zenbaki hauetara:	963 085 000; Espainia kanpotik deitzen baduzu: +34 935 916 360
Agintari eskuduna:	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala Banco de Sabadell S.A.-ren ikuskapenaren arduraduna da, oinarrizko datuen dokumentu honi dagokionez.
Oinarrizko datuen dokumentua egin den data:	2026ko irailaren 14

Erostera zoazen produktua ez da erraza. Zaila izan daiteke ulertzea.

Zer da produktu hau?

Mota

Gordailu Egituratua

Epea

Produktuaren epemuga 2027ko urriaren 29a.

Xedea

Produktuaren xedea azpiko baten edo batzuen jokaerari lotutako finantza-tresna batean inbertitzea da, errentagarritasuna lortzeko. Jarraian aipatzen diren zenbatekoak zuk inbertitutako Zenbateko Nominal bakoitzari dagozkio. Kalkulu-agenteak zehaztuko ditu zenbatekoak.

Azpikoak

Errendimendua Euribor 3 Month (Bloomberg-EUR003M Index)-era erreferentziatuta dago.

Nola zehazten da etekina?

Iraungitakoan, hurrengoak gerta daitezke:

- Azpikoaren amaierako maila % 2,50eko a edo handiagoa bada, Zenbateko Nominalaren gaineko % 2,00eko kupoia jasoko duzu.
 - Bestela, Zenbateko Nominalaren gaineko % 1,25eko kupoia jasoko duzu
- Nolanahi ere, Zenbateko Nominala berreskuratuko duzu.

Oinarrizko datak eta datuak

- Kalkulu-agentea: Banco de Sabadell, S.A.
- Gutxieneko Zenbateko Nominala: 1.000 euro
- Jaulkipen-data: 2026ko urriaren 29a
- Iraungitze-data: 2027ko urriaren 29a
- Bukaerako maila: Euribor3M-aren fixing-a (ACT/360) goizeko 11:00etan (Bruselako ordua) Amaierako Behaketa Datari
- Azken Behaketa Data: 2027ko urriaren 27a

Zein txikizkako inbertitzaileri dago zuzenduta?

Funtsean hauei zuzendutako produktua: Produktuan edo antzeko produktuetan aldez aurreko ezagutza- edo esperientzia-maila ertaina duen edozein bezerori, galerak bere gain hartzeko gaitasunik gabe, eta bere arrisku-profila <<arrisku txikia>> bada. Era berean, xede-bezeroen inbertsio-helburuak produktuaren epemugarekin koherentea den inbertsio-epari lotuta egongo dira, eragiketaren helburua kapitala babestea izango da, eta zerbitzua honelakoa izango da: egikaritze hutseko zerbitzua (txikizkako bezeroak izan ezik), komenentzia-testa duen egikaritze hutseko zerbitzua, aholkularitza independentekoa, aholkularitza ez-independentekoa eta zorroen kudeaketa diskrezionalako zerbitzua.

Zein arrisku ditut eta zer lor dezaket horren truk?

Arriskuaren adierazlea

Arriskurik txikiena

1

2

3

4

5

6

7

Arriskurik handiena



Arriskuen adierazleak produktua 2027ko urriaren 29a arte edukiko duzula ulertzen du. Ezingo duzu aldez aurretik utzi.

Arriskuaren adierazle laburtua beste produktuekiko produktu honen arrisku maila alderatzen duen gida da. Produktuak merkatuen eboluzioaren ondorioz edo guk ordaindu ezin dugulako dirua galtzeko aukerak bistaratzen ditu. Produktua 2 arrisku-motaren arabera sailkatu dugu 7ra arteko eskalan, non 2 <<arrisku txikia>> den. Horretarako, bi elementu hartzen dira kontuan: 1) merkatuaren arriskua (azpikoaren hegazkortasun arriskua eta interes tasaren arriskua): etorkizuneko jokabidearen ondorioz gerta daitezkeen galerak arrisku txikiko gisa sailkatzea; eta 2) kreditu-arriskua eta merkatuaren egoera txarrak Bankuak zuri ordaintzeko duen ahalmenean eragina izateko probabilitatea oso txikia izatea.

Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak berregituratzeko eta suntsiarazteko Europako 2014/59/EB Zuzentaraua aplikatuz, ebazpen-agintariek birkapitalizatu beharreko finantza-tresnak beste balore batzuetan amortizatzea eta/edo bihurtzea edo jaulkitzailearen aktiboak eta/edo negozio-unitateak transmititzea erabakitzeko arriskua.

Kapitalaren % 101,25 edo gehiago berreskuratzeko eskubidea du. Zenbateko horren gainetik dagoen kantitate oro, eta etekin osagarri oro, merkatuaren etorkizuneko eboluzioaren mende daude, eta ez dira ziurrak.

Ezingo bagenizu zor dizuguna ordaindu, inbertsio osoa gal zenezake. Hala ere, kontsumitzailearen babes-araubidea izan dezakezu (ikusital hau: «Zer gertatzen da ezin badizugu ordaindu»). Aurreko adierazleak ez du babes hori kontuan hartzen.

Errentagarritasun-egoerak

Produktu honetatik lortzen duzuna merkatuak etorkizunean izango duen bilakaeraren arabera izango da. Eboluzio hori zalantzazkoa da eta ezin da zehatz-mehatz aurreikusi. Erakusten diren egoerak iraganeko emaitzetan eta hipotesi jakin batzuetan oinarritutako irudiak dira. Merkatuek oso bestelako bilakaera izan lezakete etorkizunean.

Gomendatutako mantentze-aldia:	Urte 1
Inbertsio-adibidea:	10.000 euro
	Urte 1 igaro ondoren ateraz gero
Egoerak	Gomendatutako mantentze-aldia
Gutxienekoa	10.125 EUR. Etekina berrmatuta egongo da baldin eta produktua epemugara arte (2027ko urriaren 29a) mantentzen baduzu.
Tentsioduna	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena 10.125 euro Errendimendu-ehunekoa % 1,25
Kontrakoa	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena 10.200 euro Errendimendu-ehunekoa % 2,00
Neurrizkoa	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena 10.200 euro Errendimendu-ehunekoa % 2,00
Aldekkoa	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena 10.200 euro Errendimendu-ehunekoa % 2,00

Egoerek (aldekkoa, neurrizkoa, kontrakoa eta tentsioduna) emaitza posibleak irudikatzen dituzte; eta (gehienez ere) azken bost urteetan izandako erreferentziako azpiko(ar)en iraganeko errentagarritasunak erabiliz egindako simulazioetan oinarrituta kalkulatu dira. Aurkeztutako zifrek produktuaren kostu guztiak hartzen dituzte, baita zure aholkulariaren edo banatzailearen kostuak ere. Zifrek ez dute kontuan hartzen zure zerga egoera pertsonala, zeinak eragina izan dezakeen jasoko duzun zenbatekoan. Tentsiodun egoerak erakusten du merkatuen muturreko egoeretan zer jaso zenezakeen.

Zer gertatuko litzateke Banco de Sabadell, S.A.-k ordaindu ezingo balu?

Banco Sabadellek ezin badizu ordaindu Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtsekin (www.fgd.es) bermatzen dizu sartutako itzuliko dizula, 100.000 euro arte (edo haren kontrabaliua eurotan, gordailuak beste dibisa batean egin badira), gordailugile eta kreditu-erakunde bakoitzeko. Kontuan hartu Banco Sabadellek, kreditu-erakundea den heinean, Banco Sabadell, SabadellUrquijo eta Activobank markak dituela, eta zuk kreditu-erakunde berean gordailu bat baino gehiago badituzu, zenbatekoak batuko direla eta 100.000 euroko muga hori izango dutela erakundeko. Bestalde, beste pertsona batzuekin badituzu kontuak, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatu zaio. Dena den, sozietate, elkarte edo antzeko erakunde bateko bazkide edo kideak izateagatik bi pertsonak edo gehiagok badituzte eskubideak kontuan, gordailuak gehituko dira, eta titular batek bakarrik egin dituela hartuko da. Berme hori kontuko saldoetan eta diruzko gordailuetan bakarrik aplikatzen da, bai sinpleetan, bai egituratuetan. Horrenbestez, beste produktu batzuk ez dira barne hartuko, eta dagokien itzultze araubidea izango dute.

Zein dira kostuak?

Hurrengo tauletan adierazitako kostua aldatu egin daiteke merkatuko mugimenduak direla eta. Merkaturatze aldian, Oinarritzko Datuen Dokumentua kontsulta dezakezu, zeina eguneratuta dagoen Banco Sabadellen webgune publikoan edo BS Online-n, bezeroaren posizio-kontuan.

Kostuak denboran zehar

Hainbat kostu-mota estaltzeko zure inbertsioetik kendutako zenbatekoak erakusten dituzte koadroek. Zenbateko horiek honako hauen arabera dira: zenbat inbertitzen duzun, produktua zenbat denboraz mantentzen duzun eta produktuaren emaitzak zenbateraino diren onak. Hemen adierazitako zenbatekoek zenbat inbertsio-alditan zenbateko jakin baten inbertsioaren adibide bat erakusten dute. Honako kasu hauek izan ditugu abiapuntu:

- Inbertitutako zenbatekoa berreskuratzeko zenuke (% 0ko urteko etekina).
- 10.000 EUR inbertitzen dira.

	Urte 1 igaro ondoren ateraz gero
Kostu osoak	164 euro
Kostuen eragina (*)	% 1,7

(*) Urtebete baino gutxiagoko mantentze-aldi bateko kostuen eragina islatzen du. Ehuneko hori ezin da zuzenean alderatu beste PRIIP batzuetarako emandako kostuen eragin-zifrekin

Kostuen osaera

Sarrerako edo irteerako kostu bakarrak		Urte 1 igaro ondoren ateraz gero
Sarrera-kostuak	Inbertsio hori egitean ordainduko duzun zenbatekoaren % 1,64. Kostu horiek dagoeneko sartuta daude ordaintzen duzun prezioan. Ez da banaketa-kosturik aplikatuko.	164 euro
Irteera kostuak	Ez dugu irteera kosturik aplikatzen produktu honetarako, baldin eta gomendatutako mantentze-aldian ateratzen bazara.	0 euro
Ohiko kostuak		
Kudeaketa-komisioak eta beste administrazio- edo funtzionamendu-kostu batzuk	Ez da produktu honi aplikatzen.	0 euro
Eragiketa-kostuak	Ez da produktu honi aplikatzen.	0 euro
Baldintza espezifikoei kendutako kostu osagarriak		
Etekin-komisioak	Produktu honi ez zaio inolako etekin-komisiorik aplikatzen.	0 euro

Zenbat denboraz eduki behar dut inbertsioa, eta dirua lehenago atera dezaket?

Gomendatutako mantentze-aldia: 1 urte

Gomendatutako mantentze-aldia produktuaren iraungitze datari dagokio. Arren, kontuan izan produktua iraungitze-dataren aurretik baliogabetzea ez dagoela baimenduta, likideziaz ez duelako.

Nola erreklama dezaket?

Produktu honen edo jasotako zerbitzuaren inguruan kexarik edo erreklamaziorik aurkeztu nahi baduzu, Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, <https://www.bancsabadell.com> guneko harremanetarako formularioaren bitartez edota postaz, hurrengo helbidean: Bezeroen Arreta Zerbitzua - Banco Sabadell Gunea, Can Sant Joan industrialdea. Calle Sena, 12, 08174 Sant Cugat del Vallès edota posta elektroniko bidez, hurrengo helbidean: SAC@bancsabadell.com, baliabide honen erabilera 59/2003 Legearen arabera denean, abenduaren 19koa, sinadura elektronikokoa. BAZari erreklamatu ondoren, badago BMNBari erreklamatzeko aukera.

Beste datu interesgarri batzuk

Dokumentu honen osagarri gisa, kontratuaren aurreko informazio Fitxa ere emango dizugu. Fitxa horretan, produktu honi buruzko informazioa jasotzen da, Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularraren baldintzen arabera. KID honetan egin daitekeen ekintza oro Banco Sabadell web orrian edo BS Online webgunean egongo da eskuragarri, bezeroaren posizioko kontuan.